



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY



**BIZITEGI MERKATUKO TENTSIO EREMUEN
IZENDAPENERAKO DIAGNOSTIKOA ETA EKINTZA
PLANA PRESTATZEKO EREDUA**



AU RKI BID EA

01.

AURKEZPENA

3

02.

DIAGNOSTIKOA: ESKEMA ETA EDUKI

ORIENTAGARRIAK

7

2.1.-	Joera demografikoak eta emantzipazio mailak	8
2.2.-	Analisi sozioekonomikoa	9
2.3.-	Etxebizitza-beharrak eta -eskaria	9
2.4.-	Etxebizitza-parkearen bilakaera eta ezaugarriak	9
2.5.-	Etxebizitza-merkatua: erosketa eta alokairua	10
2.6.-	Etxebizitza-programen eta -politiken intzidentzia udalerrian	10

03.

EKINTZA PLANA: ESKEMA ORIENTAGARRIA ETA EDUKI
POSIBLEAK

11

3.1.-	Planaren misioa eta bisioa idaztea	12
3.2.-	Planaren helburuak edo lehentasunak	14
3.3.-	Planaren egitura	15
3.4.-	Planaren edukia: adibideak ardatzaren arabera	16
3.5.-	Laburpen-koadroa: 2026ari begirako denbora-agertokia, izendapenarekiko lotura eta aurrekontu-magnitudeen kalkulua	19

04.

ERANSKINA: Diagnostikorako adierazleen
proposamena

21



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

01.

AURKEZPENA

**ETX**ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIAOBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratutako txostenean¹ tentsio eremu gisa agertzen diren udalerrietako Udalei laguntzeko gida bat izatea da txosten honen helburua, haien udalerrian bizitegi-merkatuko tentsio eremuak izendatzea eskatzeko prozedura hastea pentsatzen badute.²

Etxebizitza Eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen 18. artikulua aurreikusten duena betetzeko, bi dokumentu idatzi behar dira:

- Batetik, etxebizitzari buruzko diagnostiko-eredu bat, 18.2.a) artikuluan aurreikusitako prestatze-prozeduran eskuratutako informazio guztia modu egituratuan aurkeztuko duena.
- Bestetik, ekintza-planaren eredu bat, 12/2023 Legearen 18.4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Tentsio eremu gisa izendatutako eremuan hautemandako desorekak zuzentzeko inplementatuko diren neurri zehatzen zerrenda txertatu behar da ekintza-planean, izendapena indarrean egongo den 3 urteetarako garapen-egutegi batekin batera.

Dokumentu horiez gain, 12/2023 Legearen 18.3. artikuluan arabera, memoria bat aurkeztu behar da³. Memoria horretan biztanleen beharrak asetzeko adina etxebizitza ez dagoela arrazoitu behar da, datu objektiboen bidez; eta etxebizitza berriak osatzeko dinamikak txertatu behar dira, etxebizitza eskuratzea eskuragarria izan dadin, baldin eta honako zirkunstantziaren bat betetzen bada:

- a) Hipotekaren edo alokairuaren kostuak aurrekontu pertsonalean edo bizikidetzaren unitatearen aurrekontuan duen batez besteko kargak, gehi oinarritzko gastu eta hornigaiak, familien batez besteko diru-sarreraren edo batez besteko errentaren ehuneko hogeita hamar gainditzea.
- b) Etxebizitza-merkatuko tentsio eremu izendatu aurreko bost urteetan etxebizitzaren erosketa- edo alokairu-prezioak izandako hazkunde metatuaren ehunekoa gutxienez ehuneko hiru puntu handiagoa izatea dagokion autonomia-erkidegoko kontsumo-prezioen indizearen hazkunde metatuaren ehunekoa baino.

Bizitegi-merkatuko tentsio eremu bat izendatzeko behin-betiko justifikazio memorian, birdefinitu egin daiteke edukitzaile handiaren figura, modu arrazoituan. 12/2023 Legearen 3. artikuluko k) atalean honela definitzen da edukitzaile handia: bizitegi-erabilerako hamar hiri-higiezinen jabea edo bizitegi-erabilerako 1.500 m²-tik gorako azalera eraikiaren jabea den pertsona fisikoa edo juridikoa (kalkulatik kanpo utzi behar dira garajeak eta trastelekuak).

Izendapenaren justifikazio-memorian mugatu egin daiteke hamar higiezinen kopurua. Hala, tentsio eremu izendatutako eremuan kokatutako bizitegi-erabilerako bost hiri-higiezinen edo gehiagoren jabea edukitzaile-handizat hartuko dela zehaztu daiteke.

¹ <https://www.euskadi.eus/euskadiko-tentsio-eremuei-buruzko-txostena/x39-ovad01/eu/>

² EAEn aplikagarria den prozedurari buruzko informazio gehiago izateko, kontsultatu honako dokumentua aurreko esteka berean: "EAEn etxebizitzari buruzko estatuko legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko protokoloa, bizitegi-merkatuko tentsio eremuak izendatzea arautzen duena".

³ Esteka berean dago memoria hori egiteko eredu bat

**ETX**ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIAOBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Horrekin lotuta, edukitzaile handitzat hartzeko izan beharreko higiezin kopurua mugatzeaz gain, 12/2023 Legearen 19.2. artikulua adierazten du memorian zehaztu behar direla tentsio eremu izendatutako horietan norbait edukitzaile handitzat hartzeko erabiliko diren irizpideak, betiere, izan dezakeen eraginaren arabera eta bere jabetzakoak diren eremu horretako alokairu-merkatuko bizitegi-erabilerako higiezin bolumenaren arabera. Hala, definizioan irizpide gehigarriak txertatu daitezke, eremuaren errealitatearekin eta ezaugarriekin bat datozenak edo eremu horretako etxebizitza arloko araudi espezifikoarekin bat datozenak.

Hortaz, dokumentu-eredu orientagarria da honakoa, eta atal eta eduki jakin batzuk iradokitzen ditu. Nolanahi ere, haien udalerriko etxebizitza-merkatuaren errealitatera egokitzen den Diagnostiko eta Plan eredu bat aukeratu behar dute udalek. Eta, bereziki, eskaera honekin lotuta etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratzea sustatzen laguntzeko helburuz hurrengo 3 urteetan inplementatu nahi dituzten estrategien eta neurrien eskemara eta tipologietara egokitu behar dute udalek.

Halaber, nabarmentzekoa da Etxebizitzaren Euskal Behatokiak kontsulta-zerbitzu bat jarriko duela Udalen eskura, dokumentu hauek egiteko beharrezko informazioa eskuratzen laguntzeko helburuz. Horretarako, helbide elektronikoa honen bidez eskainiko die arreta Etxebizitzaren Behatokiak udalei: **ovv@euskadi.eus**



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

02.

DIAGNOSTIKOA: ESKEMA ETA EDUKI ORIENTAGARRIAK

**ETX**ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIAOBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Jarraian, udalerrri bateko etxebizitza-merkatuaren egoera aztertzeko (inguruko udalerriekin alderatuta) orduan oinarritzakoak izango liratekeen kapitulu batzuk zehaztuko ditugu. Hala, honako helburuak lortu nahi dira:

- Udalerriko etxebizitza-merkatuaren egoeraren gaineko argazki zehatza aurkeztea, iturri estatistiko ofizialetako adierazleen bidez, udalerriko biztanleen zati handi batek etxebizitza horiek arrazoizko prezioan eskuratzeko dituen zailtasunak azpimarratuz.
- Salmentako eta, bereziki, alokairuko etxebizitza-merkatuaren eskaintza eta eskaria tentsionatzen dituzten aldagaiak eta faktoreak identifikatzea.

Gauzak hala, dokumentu honetan proposatzen diren iturri estatistiko ofizialek, hau da, Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Estatistikako Organoak eta Eustatek, sendotasun estatistiko nahikoa eskaintzen dute diagnostiko kontsistente bat egiteko eta beste udalerrri eta lurralde eremu batzuekin alderatu ahal izateko; bereziki, etxebizitza-merkatuaren tentsionatzeari eragin diezaioketen udalerrri mugakideekin alderatzeko (adibidez, probintziako hiriburuak eta horien metropoli eremuetako udalerrriak).

Nolanahi ere, proposatzen den eskema eta haren edukia orientagarriak dira, eta beste aztergai eta adierazle batzuekin osatu daitezke.

2.1- Joera demografikoak eta emantzipazio mailak

Helburua

XXI. mendearen hasieratik gaur egunera arteko dinamika demografikoen irudi xehea ematea da helburua, epe luzeko ikuspegitik, udalerriko etxebizitza-eskariari eta etxebizitza-merkatuaren tentsio mailari eragiten dioten joerak aztertzeko helburuz.

Edukia

Analisian honakoak aztertu daitezke:

- Biztanleriaren bilakaera, epe luzeko ikuspegitik (bi hamarkada, adibidez) eta hainbat aldagairen arabera (biztanleen adina, sexua, jatorria).
- Biztanleriaren migrazio-dinamikak, bereziki, gazteenak. Gertuko udalerrietatik biztanleak etortzeak areagotu egiten du etxebizitza-merkatuaren tentsioa.
- Interesekoak izan daitezkeen beste aldagai batzuk.

2.2.- Analisi sozioekonomikoa

Helburua

Udalerriko pertsonen eta familien egoera ekonomikoari eta sozialari buruzko adierazle nagusien egungo egoeraren eta bilakaeraren irudi sintetiko bat eskaintzea da helburua. Familiek etxebizitza ordaintzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoarekin lotutako adierazleak testuinguruan kokatzeko aukera ematen dute adierazle hauek.



Edukia

Eustatek eta Lan eta Enplegu Saileko Estatistika Organoak udalerrri mailako adierazle sorta zabala argitaratzen dute. Horiek aukera ematen dute familien egoeraren bilakaera aztertzeko eta beste udalerrri, eskualde eta lurralde historiko batzuetako datuekin alderatzeko. Adibidez:

- Udalerrriko lan-merkatuarekin lotutako adierazleak, hala nola langabezia-tasa, jarduera-tasa eta okupazio-tasa.
- Udalerrriko errenta erabilgarria, barrutien arabera. Errenta moten artean Eustatek argitaratzen duen Errenta Erabilgarria aukeratzean datza; familien diru-sarrera garbiak islatzen ditu errenta erabilgarriak. Udalerrriko edo, hala dagokionean, barruti bateko errentan oinarrituta, alokairu-errenta ordaintzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoaren irizpidea kalkulatu da (tentsio eremuaren izendapenaren eskariarekin lotuta dagoena).

2.3.- Etxebizitza-beharrak eta -eskaria

Helburua

Etxebizitza-eskariari eta azken urteetako bilakaerari buruzko informazio eguneratua aurkezta, inguruko udalerriekin alderatuta. Etxebizitza-eskariaren presioaren benetako irudia eskaintzeko aukera emango du horrek, etxebizitza-eskaintzarekin lotuta.

Edukia

Udalerrrian lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen beharren eta eskariaren gaineko informazioak eta etxebizitza aldatzeko eskariaren gaineko informazioak izan beharko lukete informazio-iturri nagusiak.

Informazio hori izan ezean, posible da Etxebizitzaren Euskal Behatokiari eskaera bat egitea, Etxebideko etxebizitza babestuaren eskaeren datuak aurkezteko, eskuratzeko-erregimenaren eta ezaugarrien arabera.

2.4.- Etxebizitza-parkearen bilakaera eta ezaugarriak

Helburua

Udalerrriko etxebizitza-parkeak azken hamarkadetan izandako bilakaera aurkeztea da atal honen helburua, bilakaera demografikoarekin alderatu ahal izateko, eta parkearen hazkunde-erritmoa presio demografikoaren hazkundearen erritmoa baino handiagoa ala txikiagoa izan den jakiteko.

Halaber, etxebizitza-parkearen ezaugarri nagusiak jasoko dira, Eustatek haren webgunean argitaratzen dituenak; eta etxebizitza motak ere bai, haien erabileraren arabera. Hala, nagusiak ez diren etxebizitzak eta etxebizitza hutsen intzidentzia kalkulatu da.

Edukia

Kasu honetan ere Eustat da informazio-iturri nagusia, udalerrien gaineko informazio xehea argitaratzen baitu etxebizitza-parkearen bilakaerarekin eta haren ezaugarriekin lotuta.

Dena den, etxebizitza hutsen gaineko datuetara hurbiltzeko, ad hoc egindako azterketaren bat eskura izan ezean, interesgarria izango litzateke erroldako datuetara jotzea eta pertsonarik erroldatuta ez duten etxebizitzak ehunekoa eta banaketa jasotzea, auzoen arabera ahalik eta xehetasun gehienekin. Eta ustez hutsik dauden etxebizitzak aztertzeko ere interesgarria izango litzateke. Hornigaien kontsumo-datuaren arabera izendatzen dira etxebizitzak ustez hutsik dauden etxebizitza gisa; adibidez, etxebizitzako ur-kontsumoaren arabera, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean ezartzen diren adierazleak aintzat hartuta.



2.5.- Etxebizitza-merkatua: erosketa eta alokairua

Helburua

Etxebizitzaren erosketa-merkatuaren eta alokairu-merkatuaren gaineko diagnostiko bat egitea da helburua, begirada salerosketen eta kontratuen bilakaeran jarrita; eta, bereziki, saltzen diren etxebizitzaren prezioak eta alokairu-erregimeneko etxebizitzaren prezioak aintzat hartuta.

Edukia

Oinarrizko adierazleak aztertu daitezke, etxebizitza libreen salerosketa-merkatuaren eta alokairu libreko etxebizitza-merkatuaren bilakaeraren irudia izateko.

Salerosketa-merkatuaren kasuan, eranskinean zehazten diren datuetatik abiatuta, udalerriko salerosketa kopuruaren eta etxebizitzaren batez besteko prezioaren bilakaeraren gaineko datuak aurkeztuko dira.

Alokairu-merkatua aztertzeko (oso garrantzitsua da eskari hau egiteko), alokairuaren batez besteko prezioaren bilakaeraren analisia aurkeztuko da, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak gordailututako fidantzei buruz argitaratzen duen informazioan oinarrituta. Analisi hori giltzarria da alokairu-merkatuak azken urteetan udalerrian izan duen tentsionatzea aztertzeko.

2.6.- Etxebizitza-programen eta -politiken intzidentzia udalerrian

Helburua

Kolektiborik behartsuenen egoera arintzen saiatzen diren eta alokairu-errenta edo hipoteka ordaintzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoari aurre egiteko zailtasun handienak dituzten biztanle taldeei etxebizitza ordaintzen laguntzen dieten etxebizitza- eta gizarte-politiken irismena eta estaldura aurkeztea da atal honen helburua.

Edukia

Hasteko, udalerriko etxebizitza babestuen parkearen gaineko xehetasunak emango dira, etxebizitza babestu moten arabera eta udalerriko etxebizitza-parkearekiko intzidentziaren arabera.

Halaber, eskura dauden askotariko laguntzen artetik prestazio motaren bat jasotzen duten pertsonen kopurua zehaztu beharko litzateke, prestazio horiek finantzatzen edo kudeatzen dituen erakundea edozein izanik ere (Eusko Jaurlaritzak, Udala, Lanbide). Modu espezifikoan adieraziko da gaur egun zenbat pertsonak duten aitortuta Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa.

Informazio hori eskuratu ahal izateko, ad hoc eskaera bat egin beharko zaio Etxebizitzaren Euskal Behatokiari. Horretarako, eranskinean atxikita dauden aldagaiekin eta interesgarritzat jotzen diren beste adierazle batzuekin lotutako informazioa eskatu behar da posta elektronikoz.



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

03. EKINTZA PLANA: ESKEMA ORIENTAGARRIA ETA EDUKI POSIBLEAK

**ETX**ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIAOBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Estatuko legeak dioen moduan, lurralde eremu bat etxebizitza-merkatuko tentsio eremu izendatuz gero, administrazio eskudunak berariazko plan bat idatzi behar du. Plan horretan, tentsio eremu izendatzean ikusitako desorekak zuzentzeko beharrezko neurriak proposatu behar ditu, baita neurri horiek garatzeko egutegia ere, honakoen gisako jarduera-esparruetan banatuta:

- Lurzoruaren bizitegi-erabilera zentzuzkoa izan dadin sustatzea; lehendik dagoen bizitegi-parkearen okupazio eraginkorra bultzatzea.
- Babes publikoko etxebizitzak sustatzea, etxebizitzaren parke publikoa zabaldu ahal izateko; bereziki, alokairu-erregimenaren eta zuzkidura-bizitokien kasuan.
- Lehendik dauden etxebizitzaren birgaitzea eta hobekuntza sustatzen duten neurriak bultzatzea.
- Zaurgarritasun ekonomiko edo sozialeko egoeran dauden eta, ondorioz, etxebizitza duina eta egokia eskuratzeko oztopoak dituzten pertsonentzako laguntza-programa espezifikoak bultzatzea.
- Behar sozialetara egokitutako etxebizitza mota berriak sustatzea.
- Etab.

Gauzak hala, 3 urterako Plan bat prestatuko da. Bertan, hainbat neurri eta ekintza jasoko dira, ardatz estrategikoetan eta jarduketa-ildoetan multzokatuta, haien koherentzia programatikoaren arabera edo helburu edo xede komunaren arabera.

Jarduketa-ildo bakoitza lantzeko modua diagnostiko-dokumentuan (aurreko atalean aurkeztu dugu) egindako analisisan oinarrituko da. Ekintzak egiteko aurreikusitako epea eta aurrekontu-esleipena modu egokian esleitzeko ere balioko du analisi horrek.

Dagoeneko indarrean dauden askotariko neurriak eta programak jasoko ditu Plan honek, modu logikoan ordenatuta. Horretarako, aurretiazko analisi bat egin behar da, tentsio eremuaren izendapenarekin lotuta, honakoak aztertzeko: Halaber, egungo egoerari aurre egiteko orduan indarrean dauden neurriak eta programek zer ondorio dituzten zehaztuko da, tentsio eremuko biztanleentzako adinako etxebizitza-eskaintzarik ez izatearen arriskuari dagokionez. Hala, neurriak eta programak egokituko dira, izendapena bera eragin duten zirkunstantziak konpontzera bideratu daitezzen, berariaz. Bat etorri behar dute etxebizitza duin eta egoki bat arrazoizko baldintzetan eskuratzeko galarazten duten arrazoiek, eta egoera konpontzeko eta etxebizitza-eskubidea bermatzeko aukera emango duten programa eta neurriak.

Jarraian, hainbat orientabide eta adibide eskainiko ditugu, Plana egiteko lagungarriak izan daitezkeenak.

3.1.- Planaren misioa eta bisioa idaztea

Planaren helburua eta funtzio nagusiak zehaztean datza. Dena den, dokumentuaren gainerako zatietan bezala, Udal bakoitzaren estiloaren eta hark eman nahi dion ikuspegiaren arabera izango da idazteko modua.

Gauzak hala, plangintza-gidaliburu tradizionalen eskemari jarraituz, hasieran misioa eta bisioa idaztea komeni dela uste dugu. Horiek ikuspegi integrala eta finalista emango diote Planari; izan ere, hura inplementatuz zer lortu nahi den eta hiru urteren buruan noraino iritsi nahi den zehaztuko da.



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Plana, funtsean, zer arrazoi edo helbururekin egin den azaltzen du **MISIOAK**. Kasu honetan, etxebizitza arloko udal-zerbitzu publikoen garapenarekin lotuta dago.

Adibidea.

Udalerriko biztanleei etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratu ahal izango dutela bermatzea, etxebizitza duina eta egokia eskuratzeko eskubide eraginkorra bermatzen aldera, eta beste helburu batzuk lortze aldera, hala nola eraikitako parkearen birgaitze jasagarria, berroneratze sozio-urbanistikoa...

Planean jasotako jarduketak gauzatzen amaitzean (3 urte) udalerriak zer egoeratan egotea espero duen definitzen du **BISIOAK**. Udal bakoitzaren ikuspegiari erantzun behar dio eta epe horretan noraino iritsi nahi den deskribatu behar du, diagnostiko zehatzetik abiatuta eta udalerriko errealitatera egokituta.

Adibidea.

Herritarrek etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratzeko aukera hobetzea, etxebizitzaren ordainketa familiarren diru-sarreraren % 30 baino txikiagoa izan dadin...

**ETX**ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIAOBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

3.2.- Planaren helburuak edo lehentasunak

Planaren baitan 3 urteko epean aurreikusten diren estrategiak eta ekintzak garatuko diren askotariko arloetan helburu zehatzagoak finkatzean datza.

Hortaz, Planaren bidez egiten den apustu estrategikoa laburtzen dute helburu horiek. Hori dela eta, koherenteak izan beharko lukete Planaren baitako estrategia nagusiekin. Estrategia eta neurriekin lotutako helburuak eta lehentasunak har ditzakete barne, honakoekin lotuta:

Helburuen eta lehentasunen adibideak

- *Etxebizitza eskuragarrien sustapenaren alde egitea, bereziki, arrazoizko prezioa duen alokairuan eraginda, etxebizitza sustatzearen bidez.*
- *Lurzoruaren bizitegi-erabilera zentzuzkoa izan dadin sustatzea; lehendik dagoen bizitegi-parkearen okupazio eraginkorra bultzatzea.*
- *Etxebizitzen parkearen bizitegi-erabilera handiagoa sustatzea, honakoen bidez: etxebizitza hutsak mobilizatzeko programak, etxebizitza ez nagusiei pizgarria kentzeko mekanismo fiskalak, hainbat strategiaren bidez apartamentu turistikoak geldiaraztea...*
- *Orokorrean, birgaitzeko programak eta laguntzak sustatzea, etxebizitza hutsak mobilizatzeko programetan alokairuko etxebizitzen eskaintza osatu dezaketen etxebizitzen parkea hobetzeko ahalegin berezia eginda.*
- *Zailtasun handienak dituzten kolektiboek zuzendutako alokairua ordaintzeko laguntzen eta prestazioen aukera zabala mantentzea eta, hala dagokionean, hobetzea.*
- *Erakundearteko gobernantza eta koordinaziorako sistemak garatzea eta/edo hobetzea.*

Adibide gisa, etxebizitza eskuragarria sustatzearekin lotutako helburu bat idatzi dugu.

Adibidea. 1. helburua.

Etxebizitza eskuragarria sustatzea, bereziki, alokairukoa; eta, horretarako, pertsonak eta familiek etxebizitza eskuratzeko (emantzipatu gabeko pertsonen kasuan) eta hura ordaintzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoa murrizten laguntzea.



3.3.- Planaren egitura

Jarraian aurkeztuko dugun eskemaren aplikazioa ikuspegi malgu batetik ulertu behar da. Hala, udal bakoitzaren norabide estrategikora eta bisiora egokitu behar da, udalerrri bakoitzeko biztanleriaren beharrei modu eraginkorrean erantzuteko aproposa izan dadin.

Goitik beherako ikuspegia

Nolanahi ere, garatu beharreko Planak hainbat ardatz izan behar lituzke, eta ardatz horietan oinarritu behar lukete estrategiek. Aldi berean, estrategia bakoitzaren barruan txertatuko dira ekintza edo proiektu zehatzak, *goitik beherako ikuspegiarekin*.

1. ARDATZA. XXXXX

1.1. ESTRATEGIA XXXXX

1.1.1. EKINTZA XXXXXXXXXXXX

Ekintzek zehaztuko dituzte datozen hiru urteetarako (2024, 2025 eta 2026) aurreikusitako proiektuak edo jarduketak.

Ardatzetan estrategiak txertatzeko orduan ikuspegi logikoa izatea proposatzen da, dagoeneko indarrean dauden neurriei eta urteetan zehar udalerrriko etxebizitza-merkatuaren tentsioa arintzen saiatu diren programa eta planei balioa emateko.

Ekintza sorta txertatzeko askotariko ardatzak

Gauzak hala, funtsezkoa izango da ardatz bat etxebizitza babestuen sustapenera bideratzea, arrazoizko prezioa duten alokairuko etxebizitzei eta beste mota batzuetako zuzkidura-bizitokiei arreta berezia eskainita; eta etxebizitza hutsak mobilizatzerara eta bizitegi-erabilerarako lurzorua zentzuzko erabilera sustatzera bideratutako neurriak ere garrantzitsuak izango dira. Halaber, funtsezkoa da zailtasun handienak dituzten kolektiboei etxebizitza eskuratzea bermatzeko neurriak zehaztea, epe ertainerako eta epe luzeerako.

Bigarrenik, ardatz bat dagoeneko eraikita dagoen etxebizitza-parkearen gaineko estrategiei eta ekintzei bideratzea proposatzen da, eta etxebizitza-parkearen egoera hobetzeko helburua dutenei arreta berezia jartzea, etxebizitza-eskaintza kalitate handiagokoa izan dadin eta herritarren beharrei modu egokiagoan erantzun diezaien. Gehienak ez dira alokairu eskuragarria sustatzeko jarduketak, zuzenean, baina mesede egiten diete etxebizitzaren kalitateari eta eskuragarritasunari.

Hirugarren ardatzak, berriz, zailtasun handienak dituzten kolektiboei etxebizitza ordaintzen laguntzeko indarrean dauden prestazio eta laguntza sorta zabala jaso dezake, hiru urterako helburuekin.

**ETX**ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIAOBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Azkenik, interesgarria izango litzateke zeharkako ardatz bat izatea, eta bertan txertatzea plana gauzatzeko konpromisoa hartzen duten instituzioen eta entitateen gobernantzarako eta koordinaziorako sistemak hobetzeko helburua duten ekintzak. Planaren beraren gobernantza-sistemak, kudeaketaren koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa hobetzera zuzendutako ekintzak hartzen ditu barne, baita beste eragile batzuekin martxan jarri daitezkeen hitzarmen posibleak ere (adibidez, Eusko Jaurlaritzarekin), alokairuko etxebizitza babestuek arrazoizko prezioa izan dezaten sustatzeko.

Hortaz, tentsio eremuaren izendapenari modu eraginkorrean erantzuteko, ardatzetan banatutako eskema bat proposatzen da, honako eskemaren gisakoa, gutxienez **4 ardatz nagusi handitan** banatuta:

1. ARDATZA.- ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEA

2. ARDATZA. ERAIKITAKO PARKEAREN GAINEKO JARDUKETAK

3. ARDATZA.- ALOKAIRURAKO PRESTAZIOEN ETA DIRULAGUNTZEN SISTEMA

4. ARDATZA.- GOBERNANTZA SISTEMAK PERFEKZIONATZEA

Ardatz estrategiko bakoitzaren barruan, estrategiak eta ekintzak txertatuko dira. Plana udalerrri bakoitzeko **HAPOan proposatutako helburuekin bat etortzea komeni da, baita udalerrriko arauekin eta ordenantzekin ere; bereziki, 1. ARDATZAREN kasuan.**

3.4.- Planaren edukia: adibideak ardatzaren arabera

Planaren egitura

Jarraian, proba gisa, interes berezia duten ekintza batzuk aurkeztuko ditugu ardatz bakoitzaren barruan, baita horiek biltzen dituzten estrategiak ere.

- 1. ardatza, **ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEKO** estrategiak eta ekintzak biltzen dituena.
- 2. ardatza, **ERAIKITAKO PARKEAREN GAINEKO JARDUKETAK** biltzen dituena: **HIRIAREN BIRGAITZEA ETA BERRONERATZEA**
- 3. ardatza, Eusko Jaurlaritzak, udalak berak edo foru aldundiek sustatutako eta/edo kudeatutako askotariko **ALOKAIRURAKO PRESTAZIOAK ETA LAGUNTZAK** biltzen dituena.
- 4. ardatza, **GOBERNANTZA SISTEMAK PERFEKZIONATZERA** zuzendua.

**ETX**ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIAOBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY**ARDATZA/Estrategia/Jarduketa-lerroa****1. ARDATZA ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEA****1.1. ESTRATEGIA Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren parkea handitzea, alokairu eskuragarrian arreta berezia jarrita. Honelako ekintzak hartuko lituzke barne:**

- Etxebizitza babestuak sustatzea.
- Zuzkidura-bizitokiak sustatzea.
- Beste jarduketa mota osagarri batzuk, hala nola etxebizitza eskuratzeko formula alternatiboak eta etxebizitza kolaboratiboak sustatzea.

1.2. ESTRATEGIA Bitartekaritzako eta alokairu-merkatuan etxebizitza hutsak mobilizatzeo jarduketak eta programak.

- 149/2021 Dekretuan, ekainaren 8koan, jenderik gabeko etxebizitzari eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriak buruzkoan, jasotako jarduketak martxan jartzea. Bereziki, jenderik gabeko etxebizitzaren erregistroa egitea eta jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko kanona.
- Bizigune eta ASAP programak sustatzea.
- Etxebizitza hutsak alokairu eskuragarriantz mobilizatzea sustatzeko neurri fiskalak (etxebizitza hutsei pizgarriak kentzekoak) eta dirulaguntzak.
- Intereseko beste ekintza batzuk.

2. ARDATZA BIZITEGI ERAIKINEN PARKEA ETA HIRI BERRONERATZEA**2.1. ESTRATEGIA Etxebizitza-parkearen birgaitzea sustatzea.**

- Jabeen komunitateei eta norbanakoei zuzendutako Eusko Jaurlaritzaren laguntzak.
- Udal-laguntzak, hirigune historikoan dauden jabeen komunitateei eta partikularrei zuzenduta.
- Etxebizitza-parkearen birgaitzea sustatzera bideratutako beste neurri batzuk.

2.2. ESTRATEGIA Hiri-berroneratzearen jarduketa integralak sustatzea.

- Birgaitze Integraturako Eremuetan eta Narriatutako Bizitegi Eremuetan ekintza zehatzak egitea.
- Problematika berezia duten auzoetan etxebizitza-parkea birgaitzea sustatzeko ekintzak.
- Halaber, beste estrategia batzuk ere proposatu daitezke, honakoekin lotuta: etxebizitza-parkearen bizitegi-erabilera sustatzea, ostatu turistikoak murriztea edo debekatzea, lokal hutsak eta horiek etxebizitza bihurtzea...

3. ARDATZA ALOKAIRURAKO PRESTAZIOEN ETA DIRULAGUNTZEN SISTEMA

Ardatz honetan biltzen dira etxebizitza ordaintzen laguntzeko (bereziki, alokairua) laguntzak eta prestazioak, eta etxebizitza ordaintzeko zailtasunik handienak dituzten biztanle taldeei zuzendutako laguntzak.

Eusko Jaurlaritzak edo udalak berak sustatutako eta/edo finantzatutako ekintzak dira. Laguntzen sustapena izan daiteke, edo beste ekintza osagarri batzuk, horien ezagutza eta hedapena hobetzera bideratuak.

3.1. ESTRATEGIA Gazteen emantzipaziorako dirulaguntzak

- Gaztelagun
- Emantzipa Programa
- Alokairua ordaintzeko Udalak sustatzen dituen emantzipaziorako dirulaguntzak

**ETX**ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIAOBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY**3.2. ESTRATEGIA Alokairua ordaintzeko laguntzak, zailtasunak dituzten kolektiboei zuzenduta.**

- Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa.
- Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta, ondoren, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa 2024an.

3.3. ESTRATEGIA Egoera ekonomiko zaugarrian eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako alokairua ordaintzeko dirulaguntzak eta bizitzeko alternatibak

- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL)
- Bazterkeria-arriskuan eta egoera zaugarrian dauden pertsonentzako bizitzeko alternatibak

4. ARDATZA GOBERNANTZA SISTEMAK ETA ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA**4.1. ESTRATEGIA Ebaluazio- eta jarraipen-sistema.**

- Tentsio-eremu izendatzearekin lotutako adierazleen jarraipena egitea eta horiek eguneratzea.
- Plana aldi behin ebaluatzea eta perfektionatzea.

4.2. ESTRATEGIA Planaren eta etxebizitza-politiken garapena koordinatzea eta horietan parte-hartzea.

- Eusko Jaurlaritzarekin koordinatzeko mekanismoak.
- Planaren jarraipen-sistema eta koordinazioa.
- Planaren eta haren baitako jarduketan informaziorako eta parte-hartzerako sistemak; adibidez, laguntzei, dirulaguntzei eta abarrei buruzko informazio-puntuak eta/edo informazio-bulego integralak.
- Alokairuko etxebizitza babestuak arrazoizko prezioan jar ditzaten sustatzeko hitzarmen posibleak, beste eragile batzuekin batera martxan jartzeko; esaterako, Eusko Jaurlaritzarekin.

Idazkera-formatua

Ekintzen edukiaren formatuari dagokionez, ekintza bakoitzak gutxienez hiru atal izatea proposatzen da.

- TESTUINGURUA

2024an indarrean dauden neurriak eta jarduketak azaldu behar dira, 2024-2026 hiru urteko ekintzak antolatzean eta garatzean oinarritzat hartuko direnak. Abiapuntua deskribatzeaz gain, erreferentzia dokumentalak, estatistikoak edo kuantitatiboak ere txertatu daitezke.

Adibidez, 1. ardatzaren kasuan, etxebizitza babestuak (bereziki, alokairu-erregimenean) eraikitzeari buruz HAPOk proposatzen dituen aurreikuspenak jasoko dira. Gauzak hala, aintzat hartu behar da 12/2023 Legearen 15.1.d) artikulua ezartzen duena: lurralde- edo hiri-antolaketari buruzko legediak ezartzen duenez, etxebizitza babestuak eraikitzeo lurzorua % 50, gutxienez, alokairu-erregimeneko babes publikoko etxebizitzetarako gorde behar da, salbuespen-kasuetan izan ezik.

- EKINTZAREN DESKRIBAPENA

Ardatz eta estrategia bakoitzaren barruko ekintza edo proiektu bakoitzaren edukia zehaztu behar da. Haren ikuspegia eta orientazioa deskribatu behar dira eta, batez ere, 2026rako helburu kuantitatiboak.

- ERAKUNDE ARDURADUNAK

Ekintza bakoitza garatzeaz eta gauzatzeaz arduratuko diren instituzioak identifikatu behar dira.



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

3.5- Laburpen-koadroa: 2026ari begirako denbora-agertokia, izendapenarekiko lotura eta aurrekontu-magnitudeen kalkulua

Ahal den neurrian, ekintzak modu kuantitatiboan zehaztu behar dira 2026ra begira, aurreikusitako helburuak zehaztearen bidez.

Halaber, interesgarria izango litzateke ekintza bakoitzak tentsio eremuaren izendapenarekin duen lotura maila edo intentsitatea adieraztea. (Altua/Ertaina/Baxua)

1. ardatzean, zehazpen horrek zerikusia izango du HAPOren aurrerapen mailarekin eta alokairuko etxebizitza babestuen, zuzkidura-bizitokien... sustapen bakoitzarentzat aurreikusitako epeen zehazpenarekin.

Azkenik, gomendagarria da Plan honen baitan hiru urtean mobilizatuko diren aurrekontu-magnitude nagusiak kalkulatzeko; gutxienez, Plan osoari eta ardatz nagusiei dagokienez.



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

04. ERANSKINA: Diagnostikorako adierazleen proposamena

JOERA DEMOGRAFIKOAK

Aldagaiak	Iturriak
<p>Biztanleria. Aldagai giltzarriak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalerriko eta inguruko biztanleriaren bilakaera. 2001-2022/23 • Udalerriko biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera. 2001-2022/23 • Udalerriko biztanleriaren bilakaera, adin-taldearen arabera. 2001-2022/23 	<ul style="list-style-type: none"> • https://eu.eustat.eus/elementos/ele0011400/ti_poblacion-de-la-ca-de-euskadi-por-ambitos-territoriales-segun-grandes-grupos-de-edad-y-sexo-01012023/tbl0011427_e.html • https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX_010154_cepv1_ep10b.px
<p>Biztanleriaren mugimendua. Aldagai giltzarriak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalerrian erroldatuta zeuden eta beste udalerrira batzuetara bizitzera joan diren 36 urtetik beherako pertsonak, helmugako lurraldearen arabera. 2012-2022. • Beste udalerrira batzuetatik udalerrira bizitzera etorri diren 36 urtetik beherako pertsonak, jatorriko lurraldearen arabera. 2012-2022. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eustati berariazko eskaria egin behar zaio. Etxebizitzaren Euskal Behatokian kontsultatu daiteke eskaria kanalizatzeko modua.
<p>Biztanleria, jatorriaren arabera. Aldagai giltzarriak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalerriko eta inguruko biztanleria, jatorriaren arabera. Pisu erlatiboa, guztizkoaren gainean. 2022 	<ul style="list-style-type: none"> • https://eu.eustat.eus/elementos/ele0011400/ti_poblacion-de-la-ca-de-euskadi-por-ambitos-territoriales-segun-grupos-de-paises-de-nacionalidad-01012023/tbl0011430_e.html • https://eu.eustat.eus/elementos/ele0020400/ti_poblacion-de-la-ca-de-euskadi-por-ambitos-territoriales-segun-relacion-con-la-migracion-y-sexo-01012023/tbl0020445_e.html
<p>Erroldatutako pertsonak vs erroldatu gabeak. Aldagai giltzarriak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsonak erroldatuta dituzten etxebizitzak, auzoaren arabera. 2023 • Pertsonak erroldatuta dituzten etxebizitzetako pertsona kopuru totala, auzoaren arabera. 2023 • Pertsonak erroldatuta dituzten etxebizitzetako batez besteko pertsona kopurua, auzoaren arabera. 2023 • 18 eta 34 urte arteko biztanleen pisu erlatiboa, auzoaren arabera. 	<ul style="list-style-type: none"> • Errolda aztertu behar da, datuak ez baitaude argitaratuta. Bestela, aurrez egindako txostenetatik edo diagnostikoetatik hartu daitezke.

ANALISI SOZIOEKONOMIKOA

Aldagaiak	Iturriak
<ul style="list-style-type: none"> Jarduera-tasaren, langabezia-tasaren eta okupazioaren bilakaera. 2022 Lanbiden erregistratutako langabezia-tasaren bilakaera. 2006-2023 Pertsonen batez besteko errenta erabilgarriaren bilakaera, sexuaren arabera, 2001-2021. 	<p>Eustat</p> <ul style="list-style-type: none"> https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX_050407_cempa_empa_pp41.px https://www.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/DB/-/PX_010154_cepv1_ep10b.px https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_395/opt_0/tipo_1/temas.html <p>Lanbide</p> <ul style="list-style-type: none"> https://www.lanbide.euskadi.eus/ikerketa-estatistikak/

ETXEBIZITZA BEHARRAK ETA ESKARIA

Aldagaiak	Iturriak
<ul style="list-style-type: none"> Erroldatutako pertsonen egindako etxebizitza babestuaren eskari kopurua, eskari-erregimenaren arabera, 2023an. Erroldatutako pertsonen egindako etxebizitza babestuaren eskari kopurua, eskari-erregimenaren arabera / pertsona kopurua. Etxebideko eskari kopurua/udalerriko biztanleria, eta inguruko udalerriekiko eta lurralde historikoarekiko alderaketa. Erroldatutako pertsonen eskaeren bilakaera, eskari-erregimenaren arabera. Udalerrian erroldatutako Etxebideko eskatzaileak, diru-sarreraren, generoaren eta adinaren arabera. 2023 Erroldatuta EZ dauden pertsonen egindako etxebizitza babestuaren eskari kopurua, eskari-erregimenaren arabera, 2023an. Etxebizitza-eskariari buruzko beste adierazle batzuk, biztanleriaren etxebizitza-beharrei buruzko azterlanak edo azterlan orokorrak eskura izanez gero. 	<p>Ad hoc eskaera bat egin behar zaio Etxebizitzaren Euskal Behatokiari, eta aurreko aldagai horiekin lotutako informazioa eskatu nahi dela adierazi behar da posta elektronikoan.</p>

ETXEBIZITZA PARKEA: BILAKAERA ETA EZAUGARRIAK

Aldagaiak	Iturriak
<ul style="list-style-type: none"> • Udalerriko eta inguruko etxebizitza-parkearen bilakaera, etxebizitzaren tipologiaren arabera. • Udalerriko eta inguruko etxebizitza-parkearen bilakaera, etxebizitza nagusietan bizi den kide kopuruaren arabera. • Etxebizitza hutsak, auzoaren arabera. • Erroldatutako pertsonarik ez duten etxebizitzak, barrutiaren edo auzoaren arabera. • Udalerriko eta inguruko etxebizitza-parkea, etxebizitzaren antzintasunaren arabera. • Udalerriko eta inguruko etxebizitza-parkearen bilakaera, etxebizitzaren batez besteko azalera erabilgarriaren arabera. • Udalerriko eta inguruko etxebizitza-parkea, igogailua duten ala ez aintzat hartuta. 	<p>Eustat</p> <ul style="list-style-type: none"> • https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_443/opt_0/tipo_1/temas.html <p>Etxebizitza hutsei buruzko informaziorik izan ezean, erroldako datuak erabili daitezke etxebizitza-parkearen erabilera maila aztertzeko eta, hala, erroldatutako pertsonak dituzten eta erroldatutako pertsonarik ez duten etxebizitzaren kopurua kalkulatzeko.</p>

EROSKETA ERREGIMENEN ETXEBIZITZA MERKATUA

Aldagaiak	Iturriak
<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitzaren salerosketa kopuruaren bilakaera. • Salerosketa kopuruaren bilakaera, etxebizitza motaren arabera. • Etxebizitzaren salerosketen batez besteko prezioa, etxebizitza motaren arabera. • Metro karratuaren batez besteko prezioaren bilakaera, etxebizitza motaren arabera; eta, hala dagokionean, barrutiaren edo auzoaren arabera. • Metro karratuaren batez besteko prezioaren bilakaera udalerrian, eta inguruko udalerriekiko alderaketa, etxebizitza motaren arabera. 	<p>Eusko Jaurlaritza. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Estatistikako Organoa</p> <p>https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/estatistika/higiezin-salerosketaren-estadistikaren-taula-estatistikak-hsee/ (udalerrri handienek bakarrik erabil dezakete)</p> <p>Erosketa-erregimeneko etxebizitzaren prezioaren kasuan, interes berezia du inguruko udalerrietako informazioa jasotzeko; batez ere, metropoli eremuetan kokatuta dauden udalerrriak direnean.</p>

ALOKAIRU ERREGIMENeko ETXEBIZITZA MERKATUA

Aldagaiak	Iturriak
<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza kopuruaren bilakaera udalerrian eta inguruan, eskuratzeko erregimenaren arabera. • Alokairuko etxebizitzaren pisu erlatiboa, udalerrian eta inguruan. • Ohiko etxebizitza kolektiboaren alokairu libreko kontratuen (ohiko etxebizitzaren kontratua) hileko batez besteko errentaren bilakaera, kontratuaren hasiera-urtearen arabera. 2018-2022 eta 2023ko III. hiruhilekoa. • Alokairuko etxebizitzaren edukitzaile handien kopurua. 	<p>Etxebizitzaren udal-estatistika. Eustat</p> <ul style="list-style-type: none"> • https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_443/opt_0/tipo_1/temas.html <p>Eustat. Etxebizitza-errolda.</p> <ul style="list-style-type: none"> • https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_274/opt_1/tipo_1/temas.html <p>Eusko Jaurlaritza. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Estatistikako Organoa</p> <ul style="list-style-type: none"> • https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/alokairu-merkatuaren-estatistika-ame/ <p>Edukitzaile handien azterketari dagokionez, Udalaren datuak erabili beharko dira.</p>

ETXEBIZITZA-PROGRAMEN ETA -POLITIKEN INTZIDENTZIA UDALERRIAN

Aldagaiak	Iturriak
<ul style="list-style-type: none"> • Udalerriko etxebizitza babestuen parkea, etxebizitza motaren arabera, 2023an. • Bizigune eta ASAP programen esparruan kudeatutako etxebizitzak. • Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren onuradunak, adinaren eta sexuaren arabera. • Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboaren onuradunak, sexuaren arabera. • Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren onuradunak, adinaren eta sexuaren arabera. • Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoaren onuradunak, sexuaren arabera. • Alokairua edo hipoteka ordaintzeko Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradunak, sexuaren arabera. • Gaztelagun programaren gazte onuradunak, adinaren eta sexuaren arabera. • Alokairurako udal-laguntzen gazte onuradunak, sexuaren arabera. 	<p>Ad hoc eskaera bat egin behar zaio Etxebizitzaren Euskal Behatokiari, eta aurreko aldagai horiekin lotutako informazioa eskatu nahi dela adierazi behar da posta elektronikoan.</p>